

IZENBURUA

Pupi eta cowboyan
abentura

EGILEA

María Menéndez-Ponte

GAIAK

Laguntasuna.
Eskuzabaltasuna

GAITASUNAK

Zientzia eta teknologia

ORRIALDE KOPURUA: 64

Jolasean, denok ala inor ez!



ZERGATIK IRAKURRI LIBURU HAU?

Pupiren pertsonaia oso gustagarri zaielako neska-mutilei, atsegina eta maitekorra baita.

ARGUMENTUAREN LABURPENA

Pupi eta lagunak jolasean dabilta Kokeren etxean. Kokek, ordea, ez dizkie bere jostailuak utzi nahi, oso mutil mimatua baita eta berak nahi duena egin behar baita beti. Baina ezustean, Kokeren gela Amerikako mendebaldeko aspaldiko taberna haietako bat bihurtu da bat-batean, eta han, bada Kokeren antza duen cowboy harroputz eta zapaltzaile bat, siorako gogoz dabilena. Une horretan, guztiz lotsatu da Koke eta ohartu da barkamena eskatu behar diela lagunei, haiekin gaizki portatu delako.

NORENTZAT DA LIBURU HAU?

Irakurtzen hasi berri direnentzat. Izan ere, oso istorio erraza da, eta haurrei gertatu ohi zaizkien egoeren marrazkiak dauzka kontakizuna ulertzen laguntzeko. Pertsonaien sagak gogoko dituzten guztientzat.

JARDUERA-PROPOSAMENA



BAKARKA

Eskatu ikasleei idatz ditzatela, zerrenda batean, liburuan ageri diren jostailu eta jolas guztiak, eta sailkatu ditzatela bi taldeetan: bakarka jolasteko direnak eta taldean jolasteko direnak. Gero, esan galdetzeko etxean ea zertan jolasten ziren haien guraso eta/edo aitona-amonak beren adina zutenean, ohar daitezzen zer-nolako aldaketak izan diren, geroztik, ongi pasatzeko eta dibertitzeko eran.



BIKOTEAK

Jarri ikasleak binaka eta esan azter dezatela Kokek kontakizunaren lehen zatian izan duen jokabidea: *harroputza, erretxina, amorratua, umore txarrekoa, errespetugabea, oldartsua, berekoia, gezurtia, tranpatia, astakiloa...* Eta gero, eskatu konpara dezatela bigarren zatian duen jarrerarekin: *kezkatua, nahigabetua, lotsatua, harritua, ausarta, damutua, eskuzabala...*



TALDEA

Egin denen artean Pupiren erretratu bat eta hitz egin galdera hauei buruz: Berezia al da Pupi? Zertan nabari da hori? Zer izaera du? Bilatu Pupiri buruzko informazioa bildumako beste kontakizunetan, eta egin horma-irudi bat pertsonaiei eta haien pasadizoei buruzko marrazki eta azalpen-testuekin.



TALDEA

Hitz egin denen artean Amerikako mendebaldeko historiari buruz dakitenaz: cowboyak, indiarak, sheriffa, janzkera, bizimodua... Aurrez ezagutzen dituzten pertsonaiekin lotu dezakete gaia, hala nola Woody-rekin, *Toy Story* filmeko protagonistarekin. Amerikako mendebaldearen konkistari eta indiarren bizimoduari buruzko datuak ere aipa daitezke.



IDAZKETA-TAILERRA

Istorio honetako pertsonaia beste leku batera bidaiatu dute, Pupiren botereei esker. Proposatu ikasleei idatz dezatela, leku gutxitan, nora bidaiatu nahiko luketen edota non agertu nahiko luketen bat-batean.